

BEUSKARAREN BERRIPAPER A

HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA

Euskararen Legeak hamar urte bete ditu

Azaroaren 24an hamar urte beteko dira Eusko Legebiltzarrak Euskararen erabilera arauzkotzeko 10/1982 Legea onartu zuenetik. Lehenengo aldia zen lege batek euskara Euskal Herriko berezko hizkuntzatzat eta, gaztelaniarekin batera, Euskal Autonomi Elkarteke hizkuntza ofizialtzat aitortzen zuela. Kontutan hartuta Euskal Herriaren historian izan diren administrazio guztietan euskarak zein erabilera eskasa izan duen, Euskararen Legea benetan mugarriztat jo daiteke. Izan ere, lege honek agindutakoa, betez, neurri eta erabaki ugari ezarri ditu euskal administrazioak hamarkada honetan. Hala nola irakaskuntzaren eremuan A, B eta D hezkuntz ereduaren garapena eta irakasleak eskalduntzeko IRALE programa, komunikabideetakoan EITBren sorrera eta garapena, Soziolinguistikazko Mapa egitea, helduak alfabetatu eta eskalduntzeko HABE erakundearen sorrera, Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiaren sorrera eta herri administrazioetako hizkuntza plangintza. Euskararen Legearen bilakaera

ez da askotan larrosabidea izan. Eusko Legebiltzarrean ordezkariak zuten alderdi ia guztien adostasunaz egin bazen ere, Espainiako Gobernuak errekurritu egin zituen legearen zenbait atal. Konstituzio Auzitegiak erabakiak hartu ahala, Eusko Jaurlaritzak etengabe ekin dio euskararen normalkuntza plangintzari eremu desberdinetan. Maila guztietan (Jaurlaritza, Foru Aldundiak, Udalak...) egitekoa oraindik handia da. Agintarien, funtzionarioen eta herritarren ardura da legea gauzatzea. Legearen 5. atalaz ez baitu alferrik aitortzen, herritar guztiek dutela hizkuntza ofizialak hitzez nahiz idatziz ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea.



Geroa eraikiz

Euskararen legearen hamargarren urteurrenak egokiera berezia eskaintzen digu iraganean eginikoa ezagutzeko, egungo euskalgintzan jarraitzeko eta batez ere, euskararen geroa ziurtatuko duen etxea eraikitzen jarraitzeko.

Euskararen Legea, araua izateaz gain, eginkizun ere bada gaurko gizartearentzat. Duela hamar urte lortutako adostasunari, eutsiz, eta legearen helburuak hartuz, gaur egungo premia eta zereginetara egokitzen asmatu behar du agintariak nahiz herritarrok. Mamitu, osatu eta arnas berri egin behar dugu legea bizirik gabeko hezur hutsean gera ez dadin. Euskara erabili egin behar da, Horixe da, haiz zuzen, legearen xedea bera, hots, euskararen erabilera.

Azken urteotan erakundeek nahiz herritarrek egindako lanak jarraipena eskatzen du. Ahalegin askoren emaitza izan da dagoeneko jasotzen hasiak garen uzta eta gerora ere elkarlanak bere fruitua emango du. Gutako bakoitzaren esku dago, nolabait, euskararen etorkizuna. Etxean, eskolan, lagunartean, lanean, salerosketan, ostatuan, kiroletan, erakundeetan eta beste alorretan euskaraz egiten dugun neurrian euskararen geroa eraikiko dugu.

Euskalgintzan lankide zareten guztioi, zorianak. Ea bada egungo erentzaren ernaldiak, loraldi itxaropentsuaren ondoren, hurrengo hamarkadan uma oparoa biltzeko zoria eskaintzen digun.

Mikel Atxaga, euskal kantarien dekanoa

Hirurogei urte bete ditu abuztuan euskal kazetarien dekanoa dei genezakeenak. Izan ere, 21 urte badira euskarazko

kazetaritza, bizibide moduan hartu zuenetik. Gaur egun ere, horretan darrai, *Deiako* Donostiako bulegoan. Urnietan jaioa, Saturrarango apaizgaitegian euskaltzaletu zen.

Lourdesen eman zuen lehen meza. Laster *Jakin* eta *Zeruko Argia* aldizkarietan hasi zen idazten, lankide Mikel Atxaga gisa. *Etor* eta *Gero* argitaletxeen sorreran parte izan

zuen. Hiru liburu idatzi ditu: *Gaztetxo* (1963), *Ezkontza bidean* (1966) eta *Ohiturak*. G. Monlanen *Mundua guztioi erakutsia* (1969) itzulia du.

Aizarnatik Usurbilera joan eta lasterrera *Zeruko Argian* hasi zen lanean, orduka lehendabizi eta egun osoz gero. Apaizgoa utzi ostean buru-

belarri sartu zen euskal kazetaritzan. Kazetari eta zuzendari izan zen *Zeruko Argian*. 16.000 ale plazaratzera heldu ziren.



Mikel Atxaga

Zeruko Argiatik Deiara joan zen 1977an. Martin Ugalde eta beste zenbaitekin batera euskara egunkariko sail guztietan sartzen ahalegindu zen. Pott egin zuten. *Eguna* astekarian ere egin zuen lana iraun zuen bitartean. Hasierako talde hartatik bera dabakarra euskaraz idazten jarraitzen duena *Deian*. Gaurko euskal kazetaritzari alde txarrak (askorentzat

erdarara pasatzeko tentaldia) eta onak (baliabide hobeak, hizkuntzaren aurrerapausuak...) ikusten dizkio. Etorkizunerako euskarazko komunikabide guztien egituratzea beharrezkotzat jotzen du aurrera egin ahal izateko. Euskararen Aholku Batzordeko kidea da.

Euskal hiztegi Enziklopedikoa

Lur argitaletxeak Euskal Hiztegi Enziklopedikoaren, euskaraz den lehenaren, hirugarren liburukia kaleratu du.

Liburuki honek "C" eta "ENA" letren arteko informazioa jasotzen du. Euskal Lexiko arrunta, Geografia eta Historia eta Zientzia eta Teknika alor nagusiak hartzen ditu 400 orrialdetan. Guztira 10.000 lexiko sarrera eta, azpisarrera.

Orain arteko euskara arduradunek -Ibon Sarasola, Endrixe Knör eta Pello Salaburu euskaltzainek- kide berria dute: Beñat Oihartzabal, Iparraldeko euskaltzaina.

Laugarren liburukia azaroan kaleratuko da. Hortik, aurrera, liburukia hilabetez behin kaleratuko dira. Euskal Hiztegi Enziklopedikoak 5.000 harpidedun ditu dagoeneko.

Ia 400.000 pertsonak hartu dute parte aurren Euskal Herriko lurralde desberdinetan ikastolen aldeko saioetan. Maiatzean 75.000 lagun baino gehiago bildu ziren Herri Urratsen. Ekainean 50.000 pertsona Araba Euskaraz eta 80.000 inguru Ibilaldian. Eguraldi txarra egin arren, 65.000 euskaltzale izan ziren Oiartzunen eta 90.000 Bianan, Nafarroan.

Arrasateko Udala

Lan handia egiten ari da euskara eguneroko lanhizkuntza bihurtzeko:

- 1991tik Lagun Aroekin egin dituen aseguru-poliza guztiak euskaraz daude.
- Kutxak Udalarari emandako kredituaren dokumentazioa euskaraz dago.
- Mota guztietako lankontratuak euskaraz daude.
- Arrasateko Udalak iaz sortu zituen idatzi guztien %34a euskaraz zeuden (1986an %14a).

Nafarroako sindikatuek

euskara lantegietan sartzeko saio berria antolatu dute, AEKren eta Nafarroako Gobernuaren Hizkuntza Politikarako Zuzendaritzaren laguntzarekin. Iazkoaren arrakasta ikusirik, *Eraiki zure etorkizuna euskaraz* kanpainari ekin diote. Ikastalde bereziak antolatuko dira, langileen lan eta ordu baldintzen arabera.

Hiru egileren irrati-

nobelak emango ditu Euskadi Irratiak urtea amaitu baino lehen. Lehendabizi, Jose Antonio Loidiren *Hamabost egun Urgainen* obra errepikatu dute 15 ataletan. Orain Antonio Maria Labaienen zenbait antzezlanetan oinarritutako 5 irrati-nobela ematen (22 atal) ari dira. Azkenik, Arantxa Iturbek irratiarako propio idatzitako *Maite, maite, maitea* (45 atal) eskainiko dute.

Euskaltzaindiaren Euskara Batuko Hiztegia

Euskaltzaindiak esku artean dituen lan garrantzitsuen artean, Euskara batuko Hiztegiak leku berezia du. Azken urteetan euskara sartuz joan da irakaskuntzan, administrazioan, komunikabideetan eta orain gutxira arte ia itxita aurkitu dituen beste hainbat giza alorretan. Eta euskararen erabilera ugalduta ahala, gero eta nabarmenagoa da ditugun zenbait zalantza (*ihardun ala jardun, injineru ala ingeniari*) argitzeko premia. Orduan iritsi da Euskaltzaindiaren ustez ez bai guzti hauek konpontzeko. Premia horiek betetzera etorriko litzateke Euskara Batuko Hiztegia.

Hiztegi honetan UZEIk eta Euskaltzaindiko Hiztegi Batuaren Batzordeak egingo dute lan orpoz-orpo. 1992tik

1996ra bitartean 25.000 forma bateratuko zerrenda osatzera joko dute. UZEIk, OEHko eta EEBSko corpusetan oinarrituta gehienbat, hitz zerrendak (bai tradizio zaharrean bai gaurko erabileran maiztasun handia duten hitzetatik hasita) eta txostenak aurkeztuko dizkio Hiztegi Batuaren Batzordeari. Honek, bere aldetik, landutako eta onarturiko zerrendak hainbat adituri (euskaltzain, idazle, irakasle, itzultzaile, etab.) bidaliko lizkieke, haien iritzia jaso eta batzordeari igortzeko. Hauen erantzunak jasotakoan, batzordearen iritzi kontutan hartzekoak UZEIri pasatuko litzaizkioke. Onartu eta kritikaturako zerrendak Euskaltzaindiaren Osoko Batzarrerara joango dira behinbetiko oniritzia eta argitaratzeko baimena jasotzera.



Thierry Delobel, Ikas-Bi, Ipar Euskal Herriko eskola publikoetan eredu elebiduna sartu nahi duen elkarteko lehendakaria *Flarep* (Lurralde Hizkuntzen Federakuntzan Irakaskuntza publikoan) elkarteak Donostian eta Hendaian egin duen biltzarren buru izan da.

Miguel Diaz de Cerio, Bianako Erentzun ikastolako lehendakariak aparteko lana egin du ikastolako guraso elkartearekin batera aurtengo Nafarroa Oinez antolatzeko. Erentzun ikastola orain 14 urte jaio zen, guraso talde batek bultzatuta.

Hiromi Yoshida, hizkuntza irakasle japoniarrak euskara-japoniera/japortiera-euskara hiztegia argitaratu berri du Tokyon. Urte t'erdiz Lazkaoko Maizpide euskaltegian ikasi zuen euskara, EGA titulua ere eskuratuz. Euskara eta beste hizkuntza batzuk irakasten ditu Tokyon.



EUSKARAREN BERRIPAPERA zure etxean doan jaso nahi baduzu edo ezagunen bati bidaltzea nahi, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia
Wellingtono Dukea, 2
01011 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskaraz Gaztelera

Izen-deiturak:.....
.....
Helbidea:.....
.....
Herria:.....
Kodea:.....
Probintzia:.....
Tfnoa:.....

Euskararen Normalkuntza irakaskuntzan

Irakaskuntzan euskararen erabilera normaltzeko aholkuak eskaintzen dira Euskararen Aholku Batzordeak argitara berri duen txosten honetan. Gaurdaino eginikoa kontutan hartuz eta egungo arazo nagusiak aztertuz, aurrera begira jarraitu beharreko irizpideak aurkezten ditu. *Aholku bildumaren 4.* liburukia da.



Galdezka

Eskola

G. Eskola lana nahikoa ote da?

E. Eskolak betetzen duen lana, garrantzitsua izan arren, mugatua da, ezin du berea den eginkizuna baino haruntzago joan, ezta umeez eskolaz kanpo euskara erabiltzen duten ala ez arduratu ere.

Hutsune hori betetzeko, aisi tartek eta eskolaz kanpoko ekintzak landu egin behar dira. Administrazio desberdinetatik, ekimen pribatuak ere zereginik izan dezakeelarik guzti horretan.

M. Karmen Garmendia.
Hizkuntza Politikarako
Idazkari Nagusia

Hizkuntza jokeraren aldaketa legeen bidez

Hizkuntza politiken historia luzean zehar, Erdi Aroaren bukaeratik gaurdaino, hizkuntza legeek ez dute nahi izan zutena lortu, hau da, hizkuntza jokaerak aldatzea. Badirudi, lege horien egingarritasuna, helburu motaren (sustapena, tolerantzia, debekua) eta testuinguru geolinguistikoak baldintzatutako hizkuntza komunitate-motaren (erregresiboa, progresiboa eta erresiduala) arteko erlazioan datzala. Erlazio horien arabera ulertu behar da hizkuntza legeen arrakasta edo porrota.

Zergatik ez du hindierak, pixkanaka-pixkanaka, ingelesa ordezkatu, Indiako konstituzioak aurrikusita bezala? Zergatik ez da erabili irlandera, Irlandako Errepublikako hizkuntza ofiziala, legeak eskatutako neurrian? Zenbateraino aldatu du euskararen ofizialtasunak euskaldunen hizkuntza jokaera? Nola aldera daitezke Kanadan frantsesaren

erabilerak izan dituen aldaketak eta Espainian katalanerak izan dituenak, biek antzeko hizkuntza legeak izana? Zenbateraino aldatu dute erakundeetako elebitasunari buruzko legeek Kanadako administrazioaren hizkuntza jokaera?

Legeen hartzaille diren biztanleen hizkuntza-ekologia aldatzeko gobernuak duen ahalmenaren arabera dira, hein handi batean, lehen aipaturiko kasuen arteko aldeak. Hizkuntza legeak eraginkorrak dira sustatu nahi den hizkuntzari atxekita dauden beste alorretako nagusitasunak ematen direnean: nagusitasun kulturala, ekonomikoa, demografikoa, etab. Nagusitasun horiek ahalbideratuko dituzte masa kritikoa, gaitasun maila altua eta hizkuntza jokaeraren aldaketa erraztuko duten baldintzak.

William F. Mackey hizkuntzalari kanadiarraren "Langue et droit" liburutik itzulia.

✓ Kontutan hartzeko

- **Expolingua, Berlin.**

Azaroaren 19tik 22ra izango da. Euskararen berri emateko Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernua elkarrekin izango dira bertan, aurreko ekitaldietan bezalaxe.

- **Ekin Euskarari Portugaleten.**

Erakusketa ibiltari honek aurrera darrai., Azaroaren 13tik 22ra

Portugaleteko Santa Klara Kultur Elkartean izango da seguruenik.

- **Euskara, euskaldunon hizkuntza,**

Joseba Intxaustiren liburua gaztelaniaz eta frantsesez argitaratuko du aurki HPINek Elkar argitaletxearekin batera. Edizio hau gaurkotu eta osatuta plazaratuko da.

EUSKO JAURLARITZA

LEHENDAKARITZAREN IDAZKARITZA
HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA



GOBIERNO VASCO

SECRETARIA DE LA PRESIDENCIA
SECRETARIA GENERAL DE POLITICA LINGÜISTICA